

Itzultzeko eskubidea

Nerea Arrien Elordi

Badalab Hizkuntza

Berrikuntza Laborategia

fabulatzen du

Zirriborroak eta gero

#10

KREDITUAK

Ekoizlea

Badalab Hizkuntza Berrikuntza Laborategia

Proiektuaren ideia zein sorketa

Arantxa Mendiharat, Ixiar Rozas, Idoia Zabaleta

Koordinazioa

Tipi Koop. Elk. Txikia

#10

Idazlea

Nerea Arrien Elordi

Alternatiba

Badalab Hizkuntza Berrikuntza Laborategia

Bildumaren diseinua

Ibon Sáenz de Olazagoitia

Ilustratzailea

Izan Sampedro Ladislao

Zuzentzailea

Leire Palacios Eiguren

Webgunea

La Debacle

Banatzailea

NOIZ

Lehen edizioa

2023.eko uztaila

Erakunde Kolaboratzaileak

Badalab Hizkuntza Berrikuntza Laborategia

ISBN

978-84-09-52038-1

Lege-gordailua

LG D 542-2023

Itzultzeko eskubidea

Kontakizunak eta fabulak
mundu posibleei buruz

zirriborroaketagero.net



Itzultzeko eskubidea

Demagun, bat-bateko itzultzaileak erabili gabe, -Itzultrak 12, 13 edo, atera berri den Itzultumatxa-, testu bat idatzi behar duzuela. Testu bat diot, narrazio bat esan dezakedan modu berean. Ez dut generoa erantsiko; aukeran fikzio, ez fikzio, entsegu, eleberri, ipuin, poesia... nahi duzuen. Premisa bakarra emango dizuet: itzultzaile gabe aritzea, burmuin-sentsoreak itzalita izatea, ChatGPT eta enparauak fuera.

Lanaren izenburuak idazlanaren gai nagusiarekin bat egingo du: "Itzultzeko eskubidea". Hots, gazteen manifestuarekin, puri-purian dagoen gaiarekin, beronek onar ditzakeen polisemia edo "polizimiekin" -gure aurrekari ziminoak beti gogoan, nola ez-.

Konturatu itsaso infinitu batean dzanga egiten gabiltzala, baina luzera, estiloa, trataera... libre a denez, ez gaitezen hasi baino lehen ito.

Bada, gauzak horrela, eskuz eginiko lanak hobetsiko dira, tentazio teknologikoak urrun izate aldera. Epeak eta gainontzeko nondik norakoak, Planeta sariketako oinarrietan kontsultatu.


Euskaraz, noski.

Indukzio-sukaldearen kristalean proiektatu du literatur taile-
rreko klasea. Hasi da 3D inpresoraz paso egiten, utikan erliebea
baino ez duen janaria! Brokante-andre bihurtu denetik, *Vintage*
azoka dirudi haren ezkaratzak. Plazer berezia sortzen dio lapikoa
irakaslearen buruaren gainean jartzeak, are gehiago, Ana Karenina-
ren poltsatxo gorria, gerezi marmelada bailitzan, borobil berotuaren
perimetroan urtzeak. Klasikoak beti pil-pilean, pla-pla-pla, hain gus-
tuko dituen saltsa horien modura. Astiro kozinatzen da literatura;
berbak lehengai, oraindik, labana digitalaren zorrotzak txikitu gabe;
karaktereen tiraniak, sare sozialetan kabitzeko premiak, lengoai-
aren ekonomiak laburtu ez duen Madame Bovariren zaldigurdiko
eszena "dautsagu kotxean" efektiboagoaren truke. Laburtu egin du
ia dena hizkuntzaren inertiak.

Berak, aldiz, ez hautsik ez kotxerik. Asterisko eta a bilduz
bete zaizkio pasioak. Hotzegi uzten du ia-ia denak; aspaldi igaro
baitzuen adin pubeszentea, atzean daude, dagoeneko, frenesi
urteak, nahiz eta nanobotek gazte mantentzen duten, beren zelulen
birsortzea uneoro posible den arren, neokortexa kolonizatu dioten
robot mikroskopikoen eraginak kezkatzen du. Burmuinaren aldirian
bizi da, eboluzio arrazionalak tipula azalaren periferian konkis-
tatu duen eremuan. Urrunegi geratu zaizkio instintuak, tipularen
zentroko narrasti-burmuina zapaburu bihurtu zaio, eta ondorengo
zerebelo emozionala, izoztegi linbiko. Bainuontzi barruan, *Zergatik*
panpox batek ere ez luke berpiztuko, Netflixerako egin duten azken
bertsioak tentaldira eraman nahi izanez gero.

Emozio bat nahi du. Desira bat. Pinotxoren egurra haragituko
duen arotz bat. Robotaren metala okela bihurtuko duen mekanikoa.
Ez da sexua bilatzen duena, atximurka bat baizik.

Eseri da sukaldean, hozkailuaren ondoan. Haren esku gabeko
hotzak atzetik heldu dio. Itzali ditu sentsoreak eta saiatu da. Aha-
legindu da *itzultzen* bigarren zentzu batez. Egin ditu egin beharre-
koak *itzulpenaren* hitzez hitzezkoari alde egiteko, polisemiaz eta
polizimiaz, baina aspaldiko zimino haien erruki begiak jartzea ez da
nahikoa izan gizatasun zantzu batzuk lortzeko, ezta emozio minimo
bat behar duten berbak lortzeko ere. Ezin izan dio eskapo egin
esanahi literalari eta jarri dio *itzultzeko eskubidea* eskatzen duen
inguruari hasiera:



Zan berriz lurra hizketa batekoa, eta hitz bat batzuetakoa.

Bibliaren arabera, uholde handiaren ondorengo belaunaldiak ekialdetik Shinar lurraldera baturik iritsi ziren, hizkuntza bakarra hitz egiten zutela. Gizakiaren baitan gero eta handinahi gehiago zegoen. Handinahi horrek bultzatuta, Zeruraino iritsiko zen dorre bat egin nahi izan zuten. Jainkoaren parera heltzeko. Jainkoa haserretu egin zen ideia horren aurrean eta dorrean lanean ari zen bakoitzari hizkuntza bat eman zion. Ordutik aurrera ezin izan zuten elkar ulertu eta zerurainoko dorrea egiteko asmoa bertan behera gelditu zen. (Genesia 11:5-8).

Parrafo bakarrak ahitu du, nahiz eta Bibliatik kopiatu.

%5Txokjogurt***!, eskatu dio hozkailuari. Giza arima handiegia soinuekin betetzeko beharrak ekarri omen zituen hizkuntzak. Ja. Aparatuekin berba egiten duen emakume bat dakusa etxetresnaren metalaren islan. Nahiko luke tresna limurtu pelikula klasikoetan neska politak hondartzako txiringitoko kamareroa seduzitzen duen modura. Halako gehiegizko pisu bat betileetan sumatu, eta klisk-klask zaratatsuak medio, izozkailua berotuko dion esaldi luze-luzea esan: emango zenidake hiru ziklotan izoztutako jogurt bat, ehuneko bostean txokolatea daramana, mesedez? Eta jarriko zenioke makilato bat txupa-txupa egiten ahal izateko, faborez?

Hozkailuarekin denbora eman, karaktereak eta bit-ak alperrik galdu, makina besarkatu, haren heldulekuaren kontra klitoria igurtzi, bere hotza *crush* izan. Egia esan, ez luke ezberdintasun handirik antzemango, azkenaldian, abatarez bete baitzaio libidoa.

Amarengana ere egin beharko luke osteratxo. Gaixotu zenetik, kate bat du orkatilari lotuta. Zergatik tematu ote zen zahartzeko nahi horrekin? Zer dela-eta bilakatu da zahartzarua hautu kontziente? Nanobot bat bera ere ez zuela jarriko. Ez nanobotik, ez itzultzailerik. Erruki zituela bizitza gizaldiz gizaldi eternitate osoan errepikatu nahi zuten tentelak. Bere zimurak ikusi nahi zituela, ileari urdintzen utzi eta ahaztu. Azkena nabarmentzen zuen; berak zahartzaro bat nahi zuela, ahazteko denbora bat. Eta lortu du, noski, ama egoskortzen denean ez dagoelako ezer gelditu dezakeenik.

Obabeleko 3789. pisuko apartamentu batetik atera da. Gora-goko bideari ekingo dio, hainbat eta altuago orduan eta zerutik hurbilago, isolatuago, bakartiago. Hor utzi du ama. Lur gogorra nahi zuela tematu arren, arbolak eta itsasoko usaina ezinbesteko zituela

erregutu zion, baina ez, ezin zuen eremu horizontalean bakarrik utzi. Zer baitetarako eraiki zuten dorre hura. Krisi klimatikoak mundua itsas mailaren harrokeriaren menpe utzi zuenetik, uholdeen beldur bizi dira babes bertikalaren menean. Gora eta behera dabilta erdi gizon, erdi konputagailu, zimino edo abatar, arrainen zakatzak eskatzen dituen naturari ihes. Eremu paduratsua da mundua, zentzu guztietan gainera. Erdi lur, erdi ur. Jakina da paduretan eraikitzen diren hirien zimentuen mengelaz. Mugitzen ari da lurzoru horizontala. Bizitza dar-dar. Gazteek, konforme ez daudenek, menostuek, gutxituek... euren dena hartu dute; kale gorria. Zero eremua. Harlauza. Bene-benetako espaloia. Errebolta horizontala egin dute arbuatua izateaz asko dakien hizkuntza bat ahoan dutela. Guztiak zeharkatu ditu euskarak eta euren bozgorailuen anplifikadoreez handitu dute, hedatu dute horizontalki, soinu uhinek eremu kontzentrikoak kolonizatzeke duten abilezia berberaz.

Obabel, berriz, Pisa bihurtzen ari da, beherantz eramaten duen berun bat zintzilik du tontorrean, pertsona aguretuak heriotzean gordeko dituen lurrak okertzen dituen modura. Saiatu dira gazteengana hurbiltzen, euskara argituko duen hiztegia ekartzen, itzultzaile modernoekin eguneratzen, saiatu dira OHBn (Obabelgo Hizkuntza Bateratuan) euskarazko hitz mordoak sartzen, baina ez da nahikoa. Errebolta, hizkuntza eta zahartzaroa hautu kontziente bihurtu ditu garapenak. Eta kontzientziak arrazoia eta inteligentzia artifiziala baina zeozer gehiago behar du neokortexaren hirian.

Izogailu pare bat txandakatzen ditu bere aitonaren aitonak Panamako kanalean esklusak nola. Haren abioietako gutunazal gorri-urdirak gorde zizkion amak, panamar igel eta sugeen soinu guturalen deskribapen eta kontu haiekin: *zelako tristiak ugelaizixoen soinuak zu onduan izan barik, ederrori*. Amak birritan irakurtzen zion esaldi hura salmo biblikoen sakralizazio tonu eta guzti. Halako zimiko bat sentitzen du bihotzean, gutuna eskuan, sexuak eta itzultzaileek ematen ez dioten harreman bat lortzen duelako berba haiekin. Mintzo zahar hura eta bere kadentzia egokia. Batzuetan, Obabeleko dimentsio bako sentsazio dentsu hartan bilatzen ditu soinu haiek, baina metronomoarekin neurtu daitezkeen abatar dialektoak baino ez ditu aurkitzen. Hori edo isiltasuna, ordularien txistuek eteten dutena, denboraren dimentsioa ere zapaldu duen aisiaren hirian. Zenbat falta da ilunabarrerako? Zenbat otordurako

edo udaberrirako? Ez du inolako garrantzirik eternitate oso bat baduzu horretarako.

Igogailuko kristaletik lur iraultzailera begiratzeko adorea biltzen duenean, suiziden eremuan dagoela konturatzen da, ez du nahi ordea, heriotza ere, bertikala izan dadin. Nazkatuta dago altueraz, presioak buruan eragiten dion zorabioaz eta hodei arteko lurrin hartaz. Askotan pentsatu du ama ere, gehiegi lurruntzen diren poeten antzera, altuerak gaixotu duela, eta ezin du erru hori itzuli, ez behintzat, literalki. *Itzuli eta itzultze*; neurositik atera ezinik dabil, altueraren gaitzak ez ezik, idazlearen gaitzak jota.

Ama isilik dago. Atera zitekeen haren ahotik lerdea, abatarfobia, bata-besteari lotutako painelu korda puta bat baina, "bai zera", amak begiratu egiten dio ahorik ireki gabe zeozer esan nahi duenaren legez, eta konturatzen da, berak ere, ahaztu duela zerbait; ama-alaben arteko protohizkuntza. Protozoo bat baino ez zela, gaixotzean, *kaskailu*, *ugelazixo*, *zapaburutxo* bezalako berba parasitoekin osatutako umearen alfabetoa. Gero, arroz pastela janez esanahia hartzen zuena, bere bihotzean, eta amaren animaliaz betetako poesia liburuetan. Berak ez dakizki ama sendatzen dituzten berbak zeintzuk diren. Kozinatzen ere ez.

Diotso: amatxo, zelan zaude?

Harri bat da ama.

Diotso: aurpegi ona duzu, ama.

Izotz estatua bat.

Diotso: *Kaskailu*, nahi al duzu arroz-esnea?

Bai, alabatxo. Kafesne batekin, mesedez.

Psikologoak, zimiologoak eta abatarologoak bat egin dute harriduran. Berak ere bai.


—Errepikatu esan berri diozuna, mesedez —proposatu du batek eta berak baietz.

—Piztu dezakezu burmuin-pantaila, mesedez? —besteak. Eta horretan erresistentzia gehiago erakutsi die, astearte goizez, bat ez delako hiru tiporen aurrean biluzten. Men egiten du, ordea.

Diotso, amari, berriz: *Kaskailu*, nahi al duzu arroz-pastela?

Esan dizut, bada, baietz!

—*Berba fosil* bat antzeman dizugu —eta sabaian proiektatu duten bere burmuin-irudian *sorioneku* ikurra seinlatu du hiruretako batek. Hanka zabalik harrapatuko balute baino pudore gehiago





sentitu du pentsamendu horien artean, hozkailuarekiko izan duen desira izoztua ikusi duenean. Ez du lotsa gehiegi izan aseptikoegia den mundu hartan, grinen berdea kirurgikoegia baita.

—*Kaskailu?* —galdetu du, burmuin-irudia noiz amatatuko urduri.

—Bai. Elenaren neokortexeko sinapsiak eskasak badira ere, badirudi berbak zerbait piztu diola linbikoan. Gaur egun, arrotz egiten zaigu baina bazegoen garai bat burmuinak harreman zuzena zuela emozioekin. Elena garai horretan kateatuta dago. Eta *berba fosilak* horra eraman du. Ikerketa askoren muina ukitzen du horrek: nola itzuli linbikora edo narrasti-burmuinera?

Eta horretan bai ez dagoela atzera egiterik. Horretan ere izan beharko luke *Itzultzeko eskubidea*.

Agian, bigarren zentzu horrekin ekin beharko lioke narrazioari. Balego amaren hitzetara bueltatzeko modurik...

Igual, gazteen marea horretan sartzeko ausardia izan beharko luke; utikan sentsoreak, zakutik hartzera nanobotak eta itzul-tzaileak. Bilatu beharko lituzke bere desirak, bere minak, bere dopaminak eta serotoninak Silicon Valley bat bitarteko izan gabe. Berba propioak bizi, amak nola. Norberaren gaixotasunekin kutsatu, amaren modura. Bere zahartzaroko zaintzaileak izan, amak bera duen lez. Nork onartuko dio esklabu papera, ordea, teknologia mespretxatzeko gutizia izan duen kapritxosa bati? Noiz arte ote da teknologiaren moralitatea neutroa? Norbaitek bere gainbehera zure esku uzten duen arte? Nork egingo ditu teknologiak egin ditzakeen lanak? Alabak?

Alabak badu bere errebolta.

Agur, ama.

Jeromi deituko dio, amarekin egon ondoren norbaitekin komunikatzeko behar bortitza sentitzen baitu. Zulo sakona da ama baten ausentzia-presentzia binomioa. Ulertu gabe hitz egiten dituen hizkuntza horien modukoa. Eskerrak euskara *maintreaming* bihurtu dela lurraldetasun bertikaleko Obabel hiri hartan, gorputz batek ezin baititu hainbeste hibridazioa jasan; erdi robot erdi gizaki, fifty-fifty dagoen eta ez dagoen ama baten alaba, hizkuntza batean pentsatu eta itzultzaileak beste batean ahoratu, falta zitzaiona! Marea arteko izaki horietako bat da, karramarro hamar hankaduna, uretakoa eta lurrekoa aldi berean, atzeraka unadaka, aurreraka ahal duenean.

Jeromi deituko dio nolabaiteko gizatasun keinua mantentzen duelako. Haren kaosa aurpegiko hazpegietako armonia antzeko batekin konpentsatzen delako. Eguzkiari azala herdoiltzen utzi diolako, *nanobot erradikal aske neutralizatzaileak* mespretxatu dituen badaezpadakoa delako. Soberan dakielako *Turing froga* edozein konputagailuren gainetik gaindituko lukeela, horra hor bere gizatasunaren bermea. Baina, batez ere, Jeromi deituko dio droga infantilak izaten dituelako. Hartz amultsu bihurtzen duten horietakoak. Haurtzaroko sentsazioek jarraitzen baitiote ama bakarrik uzten duen bakoitzean, eta haren tripa barruan sartu nahi izaten duelako bukatugabea balego bezala.

Ez daki instintu salbatzaile batek *berba fosilak* bilatzera bultzatzen duela.

Ez daki bestea biluzteko behar hori, ama sendatzeko nahi bat baino ez dela. Jerome bezalako burmuin-pantaila piztu eta amarekin komunikatzen lagunduko dion *sorioneku* bat aurkitzeko premia. Ez daki guzti hori, nanobot gaindosia horma bat delako neokortex eta linbikoaren artean. Blokeatuak ditu emozioak, gutxiagora emana instintua.

—Zer? —eskertu egiten du Jeromen irribarre eternal hori. Obabel bertikalegi hartako bertigoa kentzen diolako nolabait.

—Eta ni elebiduna zinelakoan... —bai, badaki, ez dira gauza horiek esaten hizkuntza-liberalismoaren garaian.

—*Bisexual?* —itzultzaileak ez dio esaldia ganoraz harrapatu.

—Hori ere gutxira emandakoena da polimaitasun egunotan. *Bilingue*, motel! —eskerrak Baionako Unibertsitatean azterketak euskaraz egiteko itzultzailea erabiltzen utzi ziotela.

—Jar ezazu ondo itzultzailea, arren.

—Bai, bai... —*Itzultumatxa* jartzeko erakutsi duen zabarkeriak salatu du. Baldintza estandarretan dago. 273^o kelvin 1 atm-tan. Hordituta, alegia.

—Zer hartu duzu, Jerome?

—MDMA, *Anís del mono* eta *Coca-cola zero* pixka bat. Oso indie nabil —irribarre eternala gehi laztantxoak egin dizkio.

—Ba al duzu niretzako zerbait? —estimulu elektrikoak ez ezik, kimikoak ere behar ditu.

—*Tramana* batzuk ekarri ditut —diotso hilezkorren arduragabekeriaz.

—*Tramana?* Arraindegitik?

–Ez, nik ez ditut ekarri, gamelua etorri da –barrez lehertu da.

–Itzultzaile arraioa!!

–Sudurretik sartzeko *démon* –arrainen moduan mugitu ditu Jeromek sudurreko hegatsak.

–*Tramana...* –eta etsipen garaikidea esperantza garaikidez ordezkatu du, agian, *tramana, berba fosila* izan daitekeelako.

Berehala gogoratu ditu amamaren umetako kantetako arrain guztiak: *tramanak, papardoak, kolaixoak, barbarinak...* burmuin erdiko muskerra elikatzeke lehengaia. Ahaztua zuen berba batzuk bihotzak ahoskatzen dituela. Joango zaio amari eta esango dizkio, bihar bertan, den-denak. Ez, lehenago, Jeromen jostailutxoarekin proba egin gabe.

–*Papardoa*, zer diotsu itzultzaileak?

–Arrain bat –eta plazer gozo bat sentitu du.

–*Kolaixo*.

–Beste arrain bat.

–Zein da zure itzultzaileak darabilen euskarazko aurreko mendeko berben datu-basea?

–Egon –burutik kendu du eta itzultzailearen ertzetan ageri diren izen bi ahoskatzen saiatu da –EHUko hizkuntzaren *corpusa, librea omen*–.

–Txalo bero bat beraientzat, bada, gazteen aldarrikapenekin bat datozen batzuk, behintzat!!


–Ni ere bat nator gazteekin, zaila egiten da, ordea, ohituegi zauden gauzez desegitea; badakizu, zeinu hizkuntzara hurbiltzea, nanobotak uztea, Obabeletik eremu horizontalera jaistea, uholdeei beldurrik ez izatea, muskerrak...

–Azken hitza, faborez, Jerome. *Barbarina* –linbikoaren erdi-erdian sentitu nahi du garaipena.

–*Rouget*, zure ile gorria bezain gozoa –eta Jerome uda parteko arrain gorrikara baino desiragarriago suertatu zaio. Gezurti bezain seduktore.

–Jango al duzu arraina... –hasi da betileen kliskadak airean sakabanatzen, txiringitoko kamareroa hozkailuko atea bezala tratatzen. Neurtua da bere beroaldian.

–*Behin eta berriz joko zaitut* –plaka-plaka egin dio; ez dago arrunkeria baino hizkuntza unibertsalagorik.



—Zer diozu, motel? —eta itzulpena hain izan da literala, ezen Jeromen jatorri frantsesa argi baino argiago geratu baita.

—*Se taper quelqu'un* —egin du frantses frustratuak.

—Nola? —jolasean jarraitu nahi du.

—Bada hori, *kolpe bat tiro egin* —eta aldaketatik heldu dio.

—Zenbat ordaindu duzu traste hori? *Itzultzeko eskubidea*, dohain, mesedez! —alabaren erreboluzioa barrutik atera zaio.

—*Tirer un coup*, emakume! —desesperantza frantsesa, aizu. Barrez lehertu beharrean dago. Maitasunaren hizkuntza guztiz biolentoa izan daitekeela konturatu bada ere, japoniarren erara maitatuko dute elkar *ohe barruko borrokan*.

Oheratzean itzultzailearekin jarrai dezan tematu da. Jeromek ezetz, ez dagoela azalaren hizkuntza baino itzultzaile hoberik. Kurioso iruditzen zaio sexuak sortzen duen parentesia; egun argian ikusten ez diren egitateak orduan agertzea. Bihar goizean, azalaz azalduko dio OHBz (Obabeldar Hizkuntza Bateratua) berba egiten duen okinari zein ogi nahi duen, seguru, ja!

—Ea *Itzultumatx* horren hizkuntza lizuna nolakoa den. Ea, aiton-amonek nolako zerrikeriak esaten zituzten. Joan bedi aurreko mendera, Jerome —hizkuntza zuzentzailez eta onginahiz bete zaienetik, zikindu nahi izaten du politikoki eta gramatikalki .

Jeromek maniobra txiki bat egin dio bere burmuineko sentsoreari. MDMAk ez dio uzten ostia txarrean jartzen, esanekoegia bihurtzen du eta berak ez du gehiegi gustuko. Hori ez dio esaten. Zorionez, ez dago isiltasuna itzultzen duen *Itzultumatxik*.

—*Soseatu ezinik naukak, maitte, hola, hola...*

Gipuzkera etorkizunera igarotako euskalkia. Bere arbasoak Bizkaiko kostaldetik badatoz ere, adi dabil *berba fosilen* ehiztari trebatua den heinean. *Sosegatu zaitxez*, esaten zion aitak nerabearoak ezinegona eman zionean. Gehiegi sosegatu du denborak, bai horixe!

—*Soseatu bei, Jerome* —jolasti dabil, umea da zapata berriekin.

—*Etxadia ederra gaurkoa, andria* —hara, bizkaitarra ere badabil itzultzaile txatxuak.

Ezin izan dio eutsi barreari, oraingoan, ez. Badaki gizonek ohean algara egitea ez dutela batere gustuko, etorkizunak ezin izan du halako kontzentrazio behar maskulino hori apaldu. Han daude edo hemen; *han zazelakuan hamen*. Olatuak bezala datozkio umetako esaerak, eszenak, kresal usaina senti dezake hara-honaka. Olatuek

olarrutzen diote larrua, bihotza. Zer duen hizkuntzak... non ote daude berba horiek... azalean... geneetan... ahoan... linbikoan... narrasti-burmuinean... non?

Ezin du narrutan egin ume bat delako, ezin du lizundu berbek haurtzarora eraman dutelako, amaren magalera, portuko txakur bustiekin jolastera, haien usainera... baina arrotz zaizkio era berean. Ez ditu ezagutzen aiton-amonek ezkutuan egiten zituzten hitz haiek; *etxadia*... Jendarteak egiten du hizkuntza. Hizkuntzak jendartea. Binakako hizkuntza hori ezezaguna zaio, orduko berbak, beretzat, publikoak zirelako, komunalak.

Revivalak, itzulerak, halako hormona nahasmena sortu dio. Negar egiteko gogoia apalduko dion zerbait behar du. Benetako *etxadia*. Mutil katxarroa gainean, *Draper* bat, *Steve MacQueen* bat... apeta senilak, klasikoak, *zaharrunoak*, zinematografiko bezain iparramerikarrak ditu.

—Aldatu itzultzailea ingelerara, *please*.

—*Yes birdy, yes*.

Eta iruditeria amerikarrera eraman duten hiru hitz haiek lortu dute azalekoena eta sakonena lotzea. Hori du sexuak, gauzen logika apurtzeko ahalmena, nanoboten arrazoi demasaren zirkuitulaburrak ahalbideratzeko jakituria. Zoriontsu izateko asmatu beharra; bere kasuan, irudimenaz, Jeromenean, eskuaz. Kode gurutzatu gisa agertzen zaien munduari, sentsazio kontraesankor eta zentzumenak saturatuz aurre egiteko modua. Eta gero, zoriontasun *bovarista* bat, zoriontasun txepel bat. *Sorioneku* bat burmuinean.

Jeromen azken orgasmoa, berriz, asperduraren erakustaldi bat iruditu zaio, haren isuria estolda-zulotik botatzeko gogoia, haren aurpegian etsipen apal bat, desolazio epel bat, ernegazio oso-oso sentitu ezin duenaren desilusio aurpegia.

— *Je suis désolé*.

MDMAren beherakada, koito-ondorengoak... hartz amultsuaren hekatonbea.

—*Totalement désolé*. Bizitza oker kimiko bat baino ez da.

—Elektrikoa.

—Bai, bai... elektrikoa. Ezin dut eternitate oso bat okertuta bizi. Zenbat urte dagoeneko honela? Zenbat bider errepikatu bizitza bera? Oker bera? Orgasmo bera? *Je suis désolé*. *Totalment désolé*. Bihar bertan kenduko ditut nanobot guztiak.



Norbere buruaz beste egiteko asmo modernoen katalogo oso bat egin dezake Jeromen hondoratzeekin. Asperen egin eta astindutxo batzuk emango dizkio bizkarrean, ez du jakiten zer egin. Arratsalde hondarreko zortziak dira aisiari bizitza sor dioten obabeldar erlojuen esanera. Suizida postmoderno bat aurrez aurre eta balkoiko limonondoa bete-betea.

Obabeleko zero grisa sentitzen du gainean, hariz betetako Silicon Valleyeko eskua da. Hari bat gora eta lobulu okzipitalean interferentzia. Grisa + tristura+ idazlearen neurosiaren ordain gisa, Leteren esaldi bat eman dio inteligentzia artifizialak: *gure etorkizuna laino grisen ezparadisu problematikoa*. Ez dela hainbesterako, esan du bere baitarako, ekoantsietatea baino ez da hau. Sabeleko tximeleta belztuak azidotu ditu berehala, telebistan zelaiak kolonizatzen dituzten gazteak ikusi dituenean.

Itzultzeko eskubidea nahi dute.

Dohain nahi dituzte itzultzaileak.

Neoliberalismo linguistikoa akabatu.

Hiztun aktiboak, gora.

Euskara ukitu, zikindu, basatu.

Lurraldetasun horizontala.

Zimaurra euskaraz kontsumitu. Artile del Rey delako bat jainkotu.

Gramatika hitza ixa handi batez estali dute eta aho handi-handi bat pintatu dute pankarta zurian.

Gero, Artile del Reyk zigarroa muturrean eta betaurreko erraldoi batzuk soinean, oihu egin du: *hiltzeko jai*o ginen!!

Abestuz ekin dute gazteek:

hegoak ebaki banizkio lurrera jausiko zen

ez zuen alde egingo

eta horrela, gurea izango zen berriro.

—Zer eskatzen duzue? —galdetu die esatariak.

—Batez ere, *Itzultzeko eskubidea* baina a *feeling* horizontala, *you know?* —inolako parlotsa gabe eta ziminoek utzitako euskarazko zeinuen hizkuntzaz lagunduta, azaldu dio itzultzaileen orde, plastiko belarri handi bi daramatzen gazte batek. Samurtasun sentimendua sortu dio kontrolatzen ez duen hizkuntza bat maneatzeko gaztearen ahaleginak.

–*Chique, todes*-ren ordainak... hizkuntza inklusiboa, mesedez!!
Utikan *ergatibistak*!! –oihuka beste batek.

–*Ergatibistak?* –galdera keinua egin dio esatariak.

–Bai, *neskek, guztiek*...ergatibo marka deuseztatuko lukeela dioten horiek! Ea ikuspegi gramatikala gainditzeko gai garen!

–Obabelen demolizioa! –esatariak eten egin du orduan.


Obabeleko sototik atera den ardo berriak horditu egin du.

Parodia puntu batekin hartu du hasieran, baina zehazki zerk ez badaki ere, lanerako afana eman dio. Egunean zehar izan du ideia murtzikatzeko beta, *itzultzeko* hara eta hona, iraganera eta etorkizunera, frantsesa euskarara, baina tentazioari eutsi ezinik, piztu ditu sentsoreak eta lengoaiaren emozionalaren fluxua eten zaio. Itzulpen literalaren ildotik jarraituko du, euskarak Obabelen izan duen *mainstream* bilakaeraren azalpenetan luzatuko da. Jarri berri duen nanobotak harrapatu dio ideia eta ekarri dio beharrezkoa duen informazioa:

Horra hor gakoa. Txillardegik usu nabaritu du, batetik, gizakion funtsezko aberetasuna; bestetik, ziminoen gaitasuna gormutuen zeinu hizkuntzak ikasi eta erabiltzeko, gorago aipaturiko Washoe, Moja, Lucy, Bruno eta Koko primateak bezala, Ameslan- ez mintzo, ehunka hitz erabiliz, hitz berriak sortuz, txinpantze elebidunak ahozko ingelesa entzun eta Ameslan-era itzuliz...

Zeregin garrantzitsu bat dugu aurrerantzean euskaltzaleok: milaka zimino erosi, Ameslan-en pareko «Euzehizk» (Euskarazko zeinu-hizkuntza) bat sortu (konplikatuagoa izan zen euskara batua), ziminoei irakatsi eta ondoren zimino euskaldunok ere estatistiketan zenbatuak izan daitezten erdietsi, hedabide erdaldunek arrotzu ditza- ten baino lehen. Gainera, auskalo, baliteke gizakiok bezain traidoreak ez izatea hedabide arrotzetara lerratzeko orduan.

Horrela jakin du *Txillardegi* eta *ziminoek* etorkizuna aurreratu zutela. Zimino garaiak bermatu baitzuen euskararen botere admin- istratiboa. EUZEHIZKa ikasitako ziminoak euskaldun erroldatuak izan zirelako, horrek masa izugarria eman zion euskal komuni- tateari gormutuen hizkuntza ahozkoarekin parekatu ondoren. Ez zen hori izan baina *ziminologiaren* garaipenaren arrazoi bakarra. Erabat robotizatutako gizarte hartan, ziminoen begirada errukiorrak galdutako humanitatea ekarri zuelako. Ez ziren gutxi izan abereen niniek gatibatu zituztenak. Horren lekuko ditugu garai hartako hain- bat *marketing* kanpaina; entzutetzuen, inteligentzia artifizialaren



erpeetatik salbatutako etorkizuneko Ann Darrow hura King Kongen esku handietan, Obabeleko puntan.

Oraindik, geratzen ziren batzuk, baina gehienak *ziminoa akabo* birusak sortutako pandemiak eraman zituen. Mihi gaiztoek ingeniarietza genetikoaz gauzatutako plan hiltzaile bati egotzi zioten sarraskia eta honek ez zuen berotu baino egin Obabeleko altueratik kanpo geratu zen gehiengo; gainontzeko ziminoak, emakumeak eta amak. Azken hauek, demasa menostuak hilezkortasunak ekarri zuen gainpopulazioa zela-eta. Ama-eme-homoeak bete zuten euskararen zoru pelbikoa, Obabeleko baxuetan. Ziminoak joan ziren baina *esnatu zen trikua*.

Eskuartearen zerbait baduela sentitu du. Buruan du testua. *Texere*, diotso muturra sartu baino egiten ez duen ChatGPTari konektatutako nanobotak. *Hitzekin egindako ehun bat* ei da testu bat, eta ez daki zeintzuk diren aukeratu behar dituen berbak; zaharrenak, zuzenenak, jatorrenak... denetarako aukera ematen dio teknologiak, baina literatura hiltzen du. Ez du inondik ikusten Anna Kareninaren poltso gorria, Madame Bovaryren zaldigurdia. Negoziazio bat behar du kontzientzia linguistiko eta jolasaren artean. Tranpa egiten ari da sentsoreak itzali ez dituelako, eta horrek fikzioa entsegu bihurtuko dio, seriotzat euren burua hartzen duten enpresa buruek baino ez dute irakurriko.

Iruzurtia da. Sentsoreak itzaltzea baino ez die eskatu maisuak eta berak kale. Erredentzio keinu eta guzti sentsoreak itzali ditu. Makina-andre binomioa desegin du, bizitza siamesari zintzur egin dio. Hori da benetako kinka; bietako bat bakartzen denean, barneko inkilinoak biderkatzen zaizkiola, eta jadanik, ez dakiela haiekin berba egiten. Beldur ematen diote, eta sentsoreak itzalita, ez du ihesbide teknologikorik. *Zer egin duzu urte guzti hauetan?*, diotso batek. *Zer egin behar duzu zure bizitza eternelan?*, besteak. Konturatu da haiekin euskaraz berba egiten duela. Norbere buruarekin euskaraz hitz egiten duela. Konturatu da beldurrari erakusten dion hizkuntza euskara dela. Eta euskarazko onomatopeia batekin deskribatu du oin azpian sentitu duena: dar-dar. Balkoira atera da eta ez dio apartekorik antzeman eguneroko dimentsio eza sentsazioari. Baina, limonondo txikiko limoien mugimendu eskasari, tximeleten hegalkada ez gauzek sor ditzaketen aldaketen segida iragarri die. Sekula ez dio konfiantza gehiegi eman Obabelen egonkortasunak. Sumatrako tsunamiak aurreikusi zituzten elefanteekin gogoratu da,

nola aurreikusi zuten gizakiak antzeman ezin izan zuten plaka tektonikoen arteko igurtzi hura. Instintuaren jakituria, aizu. Naturarekiko harremana. Bera ez ezik, ba ote dago inor sentsoreak itzalita Obabel hartan? Kasu egingo dio narrasti-burmuinari. Hor nonbait dabil muskerra.

—Jerome, zero pisura noa, lurzorura. Bazatoz?

—Gazteekin matxinatu behar zara, ala?

—Ez, baina lurrikara txiki bat antzeman dut. Zuk ez?

—Agian... —sekula ez dio kontra egiten.

—Agian, baina lehenago amaren bila joango naiz.

—Ama eramango duzu padurara?

—Bai. Bazatoz edo ez.

—*Très bien, Très bien, mon amour.*

Jeromek belarritakoa jarri du esker belarrian, *Itzultumatxa* darma eskuinekoan. Oso *jurru* iruditu zaio, *berba fosilak* ez ezik, halako *estetika fosila* gogora ekarri diolako haren piurak. Arnasestuka jarraitzen dio, presa inkontziente bat lagun, atoian eskutik helduta daramalako Panamako kanaleko eskusak diruditen igogailuetan gora.

Gizon batek zelatatzen du amaren pisua. Sarrera eragozten dio aurreko emakumeari, ondo aditu ezin duen arrazoiak argudio. Zatika entzuten dio. Haren ahoskera formala da, esaldien egitura osoki gramatikala; komak eta puntuak entzun ditzake ia-ia. Idazteko zein berba egiteko hitz berberak erabiltzen dituela esango luke. Badaki, ziurtasun osoz, non amaitzen den hasi berri duen esaldia. Haren mintzoan ez da kadentzia egokirik. Duda barik, abatar bat jarri dute atezain.

Beraien txanda heldu denean, ez du haren tonalitate bakarreko ahotsa entzun nahi izan. Bekaina jaitsi dio metaforikoki atearen kirtena begiratzen duen bitartean. Abatarrak ez du eragozpenik jarri, begietako deskodifikatzaileen bidez, bere aurpegia ezagutu duelako.

—Amatxo, gaur, txangoa! Haize freskoa hartzera goaz!

—Ez duzu uste amari ez zaiola komeni hemendik ateratzea?

Ezta, *kaskailu*? —lehenengo berari, eta ondoren, amari zuzendu zaio psikologoa, abatarologoa, zimiologoa edo dena delakoa.

Baina amak badaki zenbat 0 eta 1 dituen *kaskailu* batek haren aho teknologikoan. Amak antzeman die hizkuntza kodifikatzaileei, brodatuaren atzeko biten konbinazio artifizialari, bihotzik ez ibairik

ez duten *kaskailuen* estoldari. Ez dio kasu zipitzik egin *berba fosilari* milaka Irulegiko eskuk ipurdikoa edo txaloak egingo dioten inporta gabe. Jeromi besape batetik eta berari bestetik heldu die. *Nik subelandari buztana kendu...* umetako kanta ia mitologikoa bitarteko, txurrun-txurrunka atera dira Obebileko gela zurienetik. Segundo batez, zerbait berreskuratu duela sentitu du; kantuarekin hizkuntza, *subelandariakin* muskerra... auskalo.

Jaitsieran nabaritu du buruaren despresurizazioa, ez hori bakarririk, eboluzio inbertso bat medio, pisuak jaitsi ahala, filogenia eta ontogenia erreparasatu ditu. Hatzak behatz bihurtu zaizkio eta zerora heldu denean, inoiz baino animaliago sentitu da.

Zirimiria ari du lurzoruan, postaleko Euskal Herri bat ari du, euriaren zurrumurru fina dator erretenetatik. *Euri gortina batek ixten du gure kalendarioa*. Mila bider irakurri die literatur tailerreko irakasleak Jose Azurmendiren hura, eta euskaldunen historia liburuetan baino, panfletoetan idatzi dela gogora ekarri. Aurrez aurre du gazteen panfletoa:

Itzultzeko eskubidea

Kode librea

Datu libreak

Dena eskuz idatzia. Jaitsiera ostean, deshazkundera. Aldaketa bortitza dakusa, eta panfletotan mintzo da trantsizioa:

Individuotik komunara

Metaletik belarrera


Teknologiatik naturara


Neokortesetik narrasti-burmuinera

Zeru betilunduak zelai amaigabearen berdea apaltzen du, baina petrikor usaina indartu. Sudurretik sartu zaio, trenkadatik igo eta ez du jakin burmuineko zein izkina leizetsutan galdu den gozotasun infinitu hura. Oxitozina uholdea. Zenbat aldiz jaio daiteke norbait bizitza eternal batean? Gazteen lurzoru hura ukitzean, berriz jaio delako sentsazioa izan du. Ondoan du ama, birritan erditua. Euri amniotikoa ari du lurzoruan.

—Zira batzuk behar ditugu.

Baina ez daki nora jo. Gazteak ikusten ditu fabrika zaharren karrerapeak atontzen, borobilean hizkuntza keinukari bat erabiltzen suaren inguru bueltan, pantaila erraldoien inguruan aulkiak jartzen.





Alabak mugikorra bota izan ez balu deituko lioke, baina zer arraio, saiatu beharko da mundu berri hartan lehenengo mainak egiten.

—Erabat galduta gabiltza. Non aurki genezake zira batzuk eroste-ko denda bat?

—Ni neuk trukatu ahal dizkizuet. Egun *saudadetsua* gaurko...

—Ez, nahiago genuke denda batean erosi. Eskerrik asko dena den.

—Hemen ez dugu dendarik, trukaketa zentroak baizik. *De tudo um pouco* duzue bertan. Soldata unibertsala ezarri zenetik, sortzen dugun gauza bakoitzeko beste bat kontsumitu dezakegu.

—Baina guk ez dugu ezer sortu, etorri berriak gara lurzorura.

—Baina baduzue non lo egin?

—Ez, ez. Obabelen egiten dugu lo. *Obrigado*, hala ere.

Polisemia eta *polizimietan* eskasa da baina lurzoruan dabilen polihizkuntza erraz barneratzen dabilela dirudi. Petatxuz eraikitako hizkuntza hura arrotza egiten zaio. Euskara al da hainbeste aldatu duten hizkuntza hori?

—Eskerrik asko, gazte. *Obrigado* –erantsi du amak gazteak eskuetatik heldu dion bitartean.

Elkarri begiratu diote. Gazte horiek hizkuntza eskuetan, ahoan, azalean darabilte. Amak ulertu egin du gorputzeko hizkuntza nahiz eta gazteak *berba fosil* bat bera ere ahoskatu ez duen. Amari begira dago, elkar ikuste hura, haren begiak, bihotza, neokortex eskaseko burmuina. Non gordetzen du euskara?

—Amona!! Ama!!! –korrika bizian hurbildu zaie Lana, *a capella* kontzertua bertan bera utzi, eta *autotunes* moldatutako muxu zaratatsua emateko.

—Baina zu al zinen?

—Bai, ama, Artile del Rey da nire izen artistikoa

—Ohhh –miresgarria iruditu zaio Jeromi–, *cause you and I, we were born to die*, utikan eternitatea!!!

—Bai, orain, *a capella* abesten ditut poeta klasikoan letrak. Kokoteraino gaude *autotune*, *politune* eta *megaturreez*. Orain, naturaltasuna balioan jartzen dugu.

—Eta zein poetarekin zabilta?

—Zabilta kontuz adimenarekin,
sobera baitaki ez dakiela ezer:
orkatiletatik zintzilik utziko zaitu.

Hark jakinduria ahoskatu ahala, zuri bihotza ahotik irteten zaizu.

—Anne Sexton. Itzulpena; Harkaitz Cano. Bilduma; Munduko poesia Kaiera —esan du amak eta aho-bete hortz utzi ditu denak.

—Amona!!! Nanobotak jarri dituzu burmuinean, ala?

—Ez al duzu ulertzen zu zeuk erreztatzen dituzun poemak, ala? Nire hizkuntza bihotzetik doa eta bihotza ahotik!!

—Baina nola gogoratu duzu, amona?

—*Recordar. Re-cordis*; bihotzetik birritan pasatzea delako.

Amona besapetik heldu eta berarekin eraman du Lanak.

Zer egin ez dakitela geratu dira Jerome eta biak.

Bada amanteen artean, askatasun demasak sortzen duen blokeo antzeko bat.

Bada Obabelen kondaira bat, lurzoruan etzatearen arris-
kuez ohartarazten duena. Badirudi, bazela obabeldar bat zelai
batean etzan zena, eta belarritik musker bat sartu zitzaiona.
Muskerra, burmuinaren bide labirintokoak zeharkatu ondoren,
haren erdian gelditu zen lo. Hara hor narrasti-burmuinaren
jatorria. Hara hor instintuen gunea. Ez zapaldu lurzorua instin-
tuz bete nahi ez baduzu burua!!! Ez esnatu muskerra! Ez dago
robotizatu nahi zaituen gizarte batentzat zelai berde batean
etzatea baino kirol arriskutsuagorik!

Jerome, etzango al gara?

Ausartuko al zara? Baina... eta muskerra sartzen bazaigu?

Basatzeko irrikatan nago ni, zu ez ala?

Jerome esanekoa da, droga amultsuak medio, sorbalda
goratze batekin garbitzen ditu estualdi guztiak. Ez dute gehiegi
basatzeko intimitaterik lortu, etzan baino egin ez, eta eskuan
arkatz bat duen gaztea ondoan dutela konturatu direlako.

Margolaria? —galdetu dio Jeromek.

Idazlea —erantzun dio gazteak.

Jerome eta Libe. Obabeldarrak.

Bernardo, lurzorutarra.

Eternitate askotarako.

Hala bedi, baina aspaldi hautatu nuen hilkortasuna —gora
begiratu du *zeru horietan* zerbait aurkitu nahi balu bezala

Eskuz idazten duzu? Ez al da deserosoa?

Ordenadoreak urrundu egiten nau neure baitatik. Sintaxi
anpulutsu eta berba luzeak erabiltzera eramaten nau. Eskuak
barrukoa ateratzen du, agian, zirriborroa ahalbideratu, norbere



anabasa paperean marraztu... Eskua nekatu egiten da eta horrek hizkuntza ekonomizatzea eskatzen du, soiltzea.

Euskaraz idazten al duzu?

Bai. Gaur egun, euskara da hizkuntzarik aproposena idazle batentzat. Eskuetatik kentzen dizkidate obrak. Netflix, itzulpen, antzezlan... duela mende batzuk *underground* zena, gaur egun, *mainstream* bihurtu da.

Eta norentzat idazten duzu? Gazte? Heldu? Ume?

Edonorentzat...

Baina... heldu batentzat den nobela bat gazte batek uler dezake?

Zergatik ez? Belarriak nahi badu, buruak ere bai. Zelan tematzen zareten obabeldarrak ulermenarekin, aizu!! Ulertu eta ulertu, ze nesezidade!

Bai... bai... -sorbaldak goratu ditu Jeromek.

Hara, badut hurrengo nobelarako izenburua: Obabeldarrak!

Ez du itxura txarra!

Aio bikote. Kontuz muskerrekin!!

Agur, Bernardo. Zorte on nobelarekin.

Gero, Jeromek, Obabelek ez duen horizonte horizontaleko itsasoan sartu nahi izan du. Itzultzaile gabe egin dute uger, azalaren protohizkuntzan aritu dira *koilaxo*, *barbarin* eta *papardoak inguruan* dituztela. Azalean sentitu dute berriz, plaka tektonikoen igurtzia. Talka fosilak Obabelen zimentu modernoak birrindu ditu, eta itsasertzetik ikusi ahal izan dute Pisa dorrearen okerduraz grabitateari kontra egin ezinik. Hogei bat gradu geratzen zaizkio Obabeli. Jainko biblikoak haserre bizian omen.

Gau partean, bizitakoa eskuz idazten saiatu da. Ondo esan dio Bernardok berbek gorputzarekin duten atxikidura, makinak hizkuntzari ematen dion distantzia, goitik begiratzeko ahalmena, norbera ez den nonbaitetik komunikatzeko abilezia. Ondo daki Bernardok eta literatur irakasleak, baina hobeto bere amak. Hark irakatsi dizkio gaur, *Itzultzeko eskubidearen bide polisemikoak*. Itzuli dira iraganera, itzuli dira instintueta-
ra, itzuli dira narrasti-burmuinera, itzuli dira *berba fosiletara*, bestelako etorkizun batera, eta itzuli dira etxera.

Ezin izan du, ordea, duin itzuli literatura klasera, ChatGPT-ak egin diolako itzulpena. *Itzulera*, *polisemia* eta *poesia* -entsegutik urrunen dagoen generoa-, sartu dizkio adimen artifizialaren bilatzaileari eta beste poeta bati lapurtu talentua:

Itzultzeko eskubidea

-Etxeko "padurak"-

Denok behar dugu

sortu gintuen amarengana etxera hizkuntzara

itzuli.

Denok behar dugu

sortu gintuen ama etxea hizkuntza

itzuli.

Denok behar dugu

sortu gintuen ama etxea hizkuntza

itzul diezaguten.


Denok behar dugu

itzul gaitzaten

ama etxe hizkuntza berriak

sortzeko.

Leire Bilbao



ESKER ONAK

Proiektu hau lantzeko garaian, mila esker beraien denbora, ilusioa eta indarra oparitu digutenoi eta, bereziki, Etorkisuneku Topaketetan parte hartu zuten pertsona guztiei: Maddi Kintana, Olaia Gerendiain, Andoitz Gutierrez, Julen Sasiain, Alba Gonzalez, Ane Zugaza, Iker Mixelena, Leo Bueriberi, Iruñe Astiz, Jokin Pedreño, Auxkin Aranguren, Yassin Lmiri.

BADALAB HIZKUNTZA BERRIKUNTZA LABORATEGIA

Badalab Hizkuntza Berrikuntza Laborategia, etorkizuneko agertoki eta interakzio sistemetan euskara erabili dadin bermatzea du helburu. Hiztunen arteko berdintasuna ardatz, euskararen biziberritze prozesuari esperimentaziotik egiten dio ekarpena. Badalabek galderak probokatu nahi ditu elkarlanerako sinergia ez-probableen laguntzarekin erantzunak bilatu ahal izateko. Espazio irekia da tresnak eta esperientziak eskaintzen dituena.

NEREA ARRIEN ELORDI (1976, LEKEITIO)

Biokimika eta piano ikasketak egin zituen. Lizardi sariaren eskutik etorri zen bere lehenengo liburua: Pentsatzeko txokoa (Erein, 2016). Haur eta gazte literaturan hainbat lan kaleratu ditu: Atrapa eguna (Farolillos de Papel saria, 2018), Eskola hodeian (Erein, 2018) eta Etxegabetuak (Erein, 2020). Helduen narratiban, berriz, Hirutter nobela (Erein, 2018), eta eleberri eta ipuin-liburu arteko erdibidean dagoen Jende likidoa (Erein, 2021). Ipuingintza lanaren lekuko dira Kaxarranka eta Matrioska ipuinengatik jasotako Julene Azpeitia eta Gabriel Aresti sariak, hurrenez hurren. Zoonomia (Pamiela, 2022) lanagatik, Xabier Lete VI. Poesia Saria eskuratu du iaz.

IZAN SAMPEDRO LADISLAO (1993, ERANDIO)

Diseinatzaile grafikoa da. Mal Studio sortu zuen 2015ean, bere proiektuak garatzeko bide gisa. 2018tik Cuchillo enpresan lan egiten du, eta, aldi berean, bere proiektu pertsonalak, enkarguak eta zaletasunak garatzen jarraitzen du, besteak beste, eskuekin margotzea, kaktusak zaintzea eta lagunekin saskibaloian jolastea.

ZIRRIBORROAK ETA GERO

Zirriborroak eta gero alternatiba eta utopien etorkizuna irudikatzen duten ipuin laburren bilduma da. «Mundua den etxea» kontakizunean, Gabriela Damián Miravete idazleak pertsonen zirkulazio askea irudikatzen du, mugak gainditzen dituzten tokiko erakunde eta komunitateen ekintza kolektiboaren emaitza gisa.

AZALA

Zirriborroak eta gero Azala egonaldi artistikoak garatzeko espazioan sortua da, Lasierra herrian, Araban kokatua dagoen 12 biztanleko herrian hain zuzen, artadi baten mendi-magalean. 2008an abian jarri zenetik, lankidetzeta mota anitz sustatu ditu beste erakunde kultural batzuekin, eta lotura gero eta estuagoa egin nahi du inguru hurbilean egiten diren jarduerekin.

TIPI

Bilbon ezarritako kooperatiba da, jakintza arlo anitzeko talde batek osatutakoa. Bere lana arlo publikoaren eta komunitarioaren inguruko zerbitzu eta proiektuetan gauzatzen da, eta hau garatzeko jakintza-arlo ezberdinetatik datozen hainbat metodologia eta tresna erabiltzen ditu, hala nola diseinua, arkitektura, gizarte-zientziak, praktika artistikoak, etorkizuneko ikasketak edo pedagogia. 2012. urteaz geroztik, lurraldeekin, erakundeekin eta pertsona-talde anitzekin lan egin du, eskala eta tipologia desberdineko proiektuak garatuz.



Zirriborroak eta gero